

**2021EKO AZAROAREN 25A,
INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA
LEGORRETAKO UDALAREN ADIERAZPENA**

Indarkeria matxista tresna oso eraginkorra da gizarte honetan indarrean dauden genero arauak eralda ez daitezten. Azaroaren 25a aprobetxatuz, urtero-urtero sistema honen kontrako aldarrikapenak egiten dira, baita elkarretaratze eta bestelako ekitaldiak ere, ozen esateko indarkeria matxista guztiak onartezinak direla; egun horretan, era berean, herritarrengandik gertuen dauden erakunde publikoek horren kontra egiteko konpromisoa hartzen dute, baita Legorretako Udalak ere.

Gure herrian azken urteetan publikoki salatu diren erasoak adibide hartuta, tamalez, jakina da indarkeria matxista ez dela urtean egun bakarrean gertatzen den zerbait, ez eta forma bakarra duena ere, une oro emakume guztiek, salbuespenik gabe, jasaten duten egiturazko kaltea dela baizik. Horregatik, egunerokoan jardun behar da indarkeria matxistari aurre egiteko prebentzioan, kontzientziazioan, sentsibilizazioan, ezagutzan, identifikazioan, arretan, laguntzan eta justizian lanean.

Horrez gain, oraindik ere krisi egoera larrian dago gaur egungo gizartea, bai osasun krisian, baita krisi ekonomikoan eta zaintza krisian ere, eta horrek guztiak ondorioak izango ditu. Eta, beste behin, kaltetu nagusiak emakumeak izaten ari dira.

Denon zeregina da errealitate horri aurre egitea, berdintasun balioak herrian indarrean jartzea, baita erakundeona ere. Horregatik, nazioarteko egun honetan, Euskal Herri feminista eta justu baten aldeko aldarrikapena adierazi nahi du Legorretako Udalak, eta, bide hori eraikitzeke, bere gain hartzen ditu honako konpromiso hauek:

- 1.- Indarkeria matxistaren errealitate askotarikoei behar bezala erantzuteke beharrezkoak diren programa, neurri eta zerbitzuak martxan jartzea eta indartzea.
- 2.- Horretarako, 2022ko aurrekontuan arlo horretara bideratutako diru sailetan murrizketarik ez egitea eta beharrezkoak diren sailak handitzea.
- 3.- Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzea emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko diru sailak handitzeko, berdintasun zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legeria berraztertzeke konpromisoa hartzeko.
- 4.- Herriko talde feministarekin zein gainerako eragile eta norbanakoekin elkarlanean herrian indarkeria matxista kasuak gertatzen direnerako herri-protokoloa diseinatu eta indarrean jartzea.
- 5.- Udaleko langile eta ordezkariak berdintasunari buruzko prestakuntza jaso dezaten bultzatzea, bereziki emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean erantzuten diharduten langileek.
- 6.- Neska, gazte eta emakume helduentzako jarduerak antolatzen jarraitzea, besteak beste ondorengo gaietan: autodefentsa feminista, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitatea...
- 7.- Indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak hautematen eta esku-hartze goiztiarra egiten laguntzea, udal-zerbitzuen bidez, beste eragile batzuekin lankidetzan (hezkuntza, osasun eta polizia agenteak, besteak beste), eta dituzten beharrei eta baldintzei erantzutea.
- 8.- Nerabe eta gazteentzako formazio jarduerak egiten jarraitzea emakume eta gizonen arteko harreman parekideak sustatzeko xedez, zehazki: hezkuntza sexu-afektiboa lantzeko, indarkeria matxisten askotariko adierazpenak desnaturalizatzeko, baiezkoko onespina edota maskulinitate ereduak lantzeko...
- 9.- Indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidea lantzeko egungo egoerara egokitutako jarduerak martxan jartzea.
- 10.- Borroka feministaren alde hartutako konpromisoa berrestea, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeke bide eta tresna nagusia den heinean.

Legorretako Udalak, beraz, bat egiten du mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta herritarrei dei egiten die mobilizazio horietan parte har dezaten.